



2025EKO MAIATZAREN 8KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko maiatzaren zortzian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Eneritz Miranda Muxika, Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Maria Carolina Aguirre Mastrangelo eta Haritz Antoñanzas Urdangarin.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2025eko martxoaren 27an egindako ohiko bilkurako akta, eta galdera eta erreguen puntuan esaldi bat gehitzea adostu ondoren onartu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- BERME ITZULKETA - AGAUNZA BERRI S.L., 6 H.J.A. -ITURGAITZAGA-KO 13. E.L. BESTERENTZEA (2021).-

2021eko maiatzaren 27an, Osoko Bilkurak Lazkaoko 6 H.J.A. -Iturgaitzagako 13. E.L. lurzati eraikigarria besterentzea AGAUNZA BERRI, S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 44.061,46 €-ko behin-betiko bermea aurkeztu zuen banku-transferentzia bidez, eskualdaketa eskritura publikoan formalizatu aurretik.

2025eko otsailaren 21ean AGAUNZA BERRI, S.L.-k Udalaren erregistro elektronikoaren bitartez, behin betiko berme hau itzultzeko eskaera egin zuen.

Honen aurrean, eta Udaleko Arlo Teknikoko Koordinatzaileak burutu duen txostenean oinarriturik, Osoko Bilkura honek aho batez behin-betiko berme gisa aurkeztutako 44.061,46 € itzultzea erabaki du AGAUNZA BERRI, S.L.-ri.



IV. GALDERAK ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) galdera bat luzatu du Hiri Antolamenduko Plan Orokorren inguruan. Zein egoeratan dagoen galdetu du, lau hilabete inguru pasa direla Estudio K enpresari esleitu zitzaionetik eta diagnostikoa egin behar zuela epe horretan. Diagnostikorik ba ote dagoen eginda galdetzen du.

Alkateak dio diagnostikoaren lehen zirriborro bat bidali berri dutela. Teknikariak hasi direla irakurtzen, baina hutsuneekin bidali dutela eta oraindik osatu egin behar dutela.

Ormazabalek dio badakitela diagnostikoa dokumentu dinamiko bat dela, eta honi jarraipen berezi bat egin nahi diotela adierazi zutela. Esan zutela hau kontuan hartuko zutela, baina ez dakitela oso zuzen hasi diren. Aholkulariek badutela lehen zirriborro hori eta oposizioak ez, atzeratuta dabilzala dagoeneko.

Alkateak dio aste honetan bidali duten lan-dokumentu bat dela erdi-egina dagoena. Esan litekeela osatua dagoenean bidaltzea, aztertu ahal izateko.

Bergara zinegotziak (EH Bildu) diagnostikoaren zirriborro hori edukitzea eskatu du.

Alkateak erantzun du bidaliko zaiela.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du arratsaldeko seiak eta berrogei direnean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.



The image shows a handwritten signature in blue ink above an official stamp. The stamp consists of a blue shield emblem with a white cross and four dots, and the text "LAZKAOKO UDALA" in blue capital letters below it. To the right of the stamp is another handwritten signature in blue ink.